



## MUSIKA

# Intentsitate eta energia neurtua



## KING KONG BABY SONIC TRASH

LA MOTTA RECORDS

IKER BARANDIARAN

**S**onic Trash talde bilbotarra –eta bere aurrekari Ya Te Digo– ezkutu altxorra da, publikoarentzat ezezaguna. David Honok gidatutako taldeek dozenaka urte daramatzate 90eko hamarkadako altxortegian arakaten eta tiraka, hori guztia berrasmatu eta energiaz, sentsualitatez eta aberastasunez betetako emaitza lantzen eta erdiesten.

Hainbat urte pasa dira estudioko azken lan luzea (*Latigo*) kaleratu zutenetik. Itzela izan zen lan horren kolpea, kiribildua –taldearen izaerarekin bat datorrena– eta amorrazio zein irmotasunez bete. A zer astindua eman ziguten diskoarekin eta zuzenekoekin! Orduetik, 2015etik, luze jo du itxaronaldiak, nahiz eta tartean *Totem* EPa argitaratu eman zuten.

Horregatik, ilusioz hartu ditugu *King Kong Baby* osatzen duten hamar kantak, Submarino Records eta Tio Pete estudioetan grabatutakoak. Nabaria da diskoa egiteko denbora hartu dutela eta halakoa da emaitza. Gainera, gai izan dira taldeak barnean duen urgentzia modu neurtuagoan plazaratzeko. *Kalamity (zure zapore berria)* berezia da: lehen aldiz euskaraz abestu dute eta, gainera, Birkit-ek ere parte hartu du. Emaitza? Kantu intrigazkoa, sentsuala, tarteka beltza tarteka kutsu ekialdetarra duena, noise-a eta Flying Nun-en low giroak uztartzen dituena. *Bilbao speed city*-k taldearen marka dauka: presazkoa, iluna, gautiarra, rockeroa eta industriaurrekoa. *Orient Ltd* 90eko hamarkadako indie-rock dotorea da, new wave-etik

ere edan du, jostaria eta ospakizuneko ere bada. *Sexy bass*-ek ere hamarkada hura dauka oinarri, baina indartsuagoa, distortsionatuagoa eta eroagoa da. *Amnesia*-ren introa Stooges-en parekoa da. Jarraian, Velvet eta Cancer Moon-en bi detik, psikodelikoagoa da eta pisutsuago bilakatzen da ilargi paisaiarantz. *Acelerado*, Eduardo Benavente anfetaminaz leporaino idatziko lukeen rock-and-roll eskizoa. *Kamazotz* rock maltzurra, samba eta Pixies batzen dituen entsalada. *Amarcore* Beast Of Bourbonen tamainako malenkonía arrisksua eta psikodelia tantak batzen dituen balada. *Cortes Touch and Go*-ren marka diren gitarra zorrotz metalikoek jantzitako post-rocka. Azkenik, *Alma canibal* esperimentu korala. ●